



ZERBITZU LINEAK ZEIN BALDINTZATAN EGIN BEHAR DIREN ARAUTZEKO ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 1990/05/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1990/09/17an

ZERBITZU LINEAK ZEIN BALDINTZATAN EGIN BEHAR DIREN ARAUTZEKO ORDENANTZA

SARRERA

Udalak ahalmena du instalazio elektrikoak nola eta zein baldintzatan egingo diren arautzeko eta hala ematen dio 1900eko Legearen 12. artikulua honako hau bait dio: «Argindarraren pasabideko derrigorrezko Menpekotza herri barruetan Hiri Poliziako Ordenantza Orokorren eta lokalen bitartez arautuko da eta horietan aurikusita ez dagoena Kode Zibileko aginduen bidez.»

1966ko urriaren 20ko Dekretuaren 15. artikulua «Elektrizitatea. Instalazio elektrikoetarako baimena». Instalazioak herri-guneetan edo zabaltze zonetan: instalazio elektrikoak herri barruetan edota onartutako bertako zabaltze zonetan ezarri behar direnean dagokion Udalak legalki onartutako Udal Ordenantzei eta Hiri Antolaketako planoari jarraiki adierazten dizkion baldintzetara egokitu beharko da instalazioaren titularra, derrigorrezko desjabetzapen eta instalazio elektrikoaren alorreko zehapenei buruzko martxoaren 18ko 10/1966 Legeko 2. Artikuluan eta gainerako xedapen aplikagarrietan xedatutakoarekin bat, Industria eta Obra Publikoetako Ministerioei dagokien eskumenaren kalterik gabe. Aipatutako 1966ko martxoaren 18ko Legeko 13. Artikulua «Elektrizitatea. Derrigorrezko desjabetzapena eta pasabideko menpekotza argindarraren instalazioetarako.» honela dio: Instalazio elektrikoak herri barruetan edota onartutako zabaltze zonetan ezarri behar direnean, haiek nola eta zein baldintzatarara egokiturik egin behar diren erabakitzea dagokien Udalen eskumenekoa izango da, Lege honetako 2. artikuluari eta gainerako xedapen aplikagarriei jarraiki Industria eta Obra Publikoetako Ministerioei dagokienaren kalterik gabe.

Kasu hauetan dagozkien Udal Ordenantzak eta Udal Antolaketako planak eta Hiri Antolaketako planak beteko dira.

1968ko azaroaren 28ko Dekretuaren 35. artikulua «Elektrizitatea. Tentsio handiko airetiko linei buruzko Erregelamendua» adierazten duenez zona hiritarrean tentsio handiko tendido elektriko, guztiak lurrazpikoak izango dira.

1. Artikulua.—

Hiri zona barruko zerbitzu linea guztiak lurrazpikoak izango dira. Zerbitzu lineatzat tentsio txikiko, tentsio handiko, telefono eta gainerako linei dagozkienak ulertzen dira.

2. Artikulua.—

Udaletxean planoak entregatuko dira zerbitzu lineen ibilbideekin, plano horiek Zerbitzu Teknikoetan, erregistratuko direlarik, aipatutako Zerbitzuek azpiegiturazko obraren bat burutu behar badute, kanalizazioaren trazaketa ezagut dezaten.

3. Artikulua.—

Lurrazpiko instalazioa hodipecoa izango da eta hamar (10) Zentimetrotako diametroan hormigoizko hodi bat egongo da erretserba modura Udalaren esku, kaleko argiteria edo bideko seinalezapen instalazioetan erabil dezan. Hodi horrek hiru (3) milimetrotako diametroan altzairu galbanizatuzko gida bat era-mango du eta bere kostua eskatzailearen kargura izango da.

Hodiak espaloien azpitik joango dira bertan toki erabilgarria dagoenean (Ur, Saneamendu, Argiteria eta abarreko Udal Zerbitzuek lehentasuna izango dute), eta 0,60

metrotako sakoneran lurperatuta egongo dira, espaloia edo galtzada zegoen egoera berera itzuli behar delarik. Udalari galdetu zaio espaloian kondukzioetarako espazio erabilgarriak gelditzen den jakiteko. 30 metroko arketa bana ere eraikiko da.

Baldin eta konpainia eskatzaileak lurrazpiko kableak hodirik gabe ezarri nahi baditu, horrek ez du salbuetsiko Udalarentzat erretserbako hodi bat edukitzeko obligaziotik eta kasu horretan hogeita hamar (30) metroko arketa bana eraikiko da bakoitza. bere estalkiarekin.

4. Artikulua.—

Debekatuta dago bide publikoetan lurrazpiko transforma- zio zentroak eraikitzea, baita ere lurperatutako tamainaz plantako 0,80 x 0,80 metroko arketa bat baino handiagoa izan daitekeen beste edozein instalazio.

5. Artikulua.—

Lurrazpiko kondukzioek 0,40 metroko separazioa izango dute udal urekoekin eta ur kondukzio batekin gurutzaketa dagoenean, elektrizitatekoa edo telefoniakakoa haren azpitik pasako dira. Hormigoizko konduktuen gainean abisuzko xingola plastiko bana ezarriko da.

6. Artikulua.—

Zoladura jarraituko espaloietan edo galtzada batean erreten bat irekitzeari ekin aurretik, ebakiak zerrarekin edo rotaflexekin egin beharko dira.

Lurrazpiko kanalizazioetarako erreten bat irekitzerakoan adokinezko zoru zahar bat azaltzen bada, honela jokatu da:

- a) Adokinak gainerako eskonbroetatik bereizi eta gorde egingo dira geroago ipintzeko.
- b) Konduktuak ezarriak euren babesarekin, xingola seinalizatzaileekin eta abarrekin, erretena bete eta adokinaren azpikalderaino trinkotuko da, eta atzera ere lehen zegoen adokin berbera ezarriko da finkatze sistema berdintsua erabiliz.
- c) Azkenik, adokinaren gainean eguneko zoladura birjarriko da, 7. artikuluaaren arabera.

7. Artikulua.—

Zazpi metro edo gutxiagoko zabalera duen galtzada batean erreten bat irekitzen denean galtzada osoa atzera asfaltatuko da.

Galtzadaren zabalera zazpi metro baino handiagoa denean galtzada erdia bakarrik asfaltatuko da.

Birjarpeneko zoladura mota aglomeratu beroa izango da.